Proposamenak isilpekoak izango dira eta jarri beharreko baliabideak jarri behar dira isilpekoak izan daitezen, harik eta proposamenak ireki arte.	Las proposiciones serán secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de apertura de las proposiciones.
Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu dezake, ez bada 2017ko SPKLaren 142. artikuluan jasotakoa gertatzen, aldaerak onartzea aurreikusita dagoen kasuetan. Eta 143. artikuluan (enkante elektronikoa). UTE (aldi baterako enpresa-elkartea) gisa ere ez dago beste batzuekin batera proposamenik aurkezterik banan aurkeztu badira. Era berean, ez dago UTE batean baino gehiagotan parte hartzerik. Aurrekoa hautsiz gero, ez da onartuko era horretako proposamenik.	Cada licitador o licitadora no podrá presentar más de una proposición, sin perjuicio de lo previsto en los artículos 142 de la LCSP 2017, para los casos en que se haya previsto la admisibilidad de variantes, y en el 143, cuando se celebre una subasta electrónica. Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en UTE con otros si lo ha hecho individualmente o figurar en más de una UTE. La contravención de lo anterior dará lugar a la no admisión de todas las propuestas por él suscritas.

21.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA ETA EDUKIA Lizitatzaileek aurkeztutako proposamenak honako karpeta hauetan egon behar dira banaduta, dokumentazio honekin:	**21.- FORMA Y CONTENIDO DE LAS PROPOSICIONES** Todas las proposiciones de los licitadores o las licitadoras deberán estar integradas por las siguientes carpetas, con la siguiente documentación:
KARPETA 1: ADMINISTRAZIOKO AGIRI OROKORRAK	CARPETA 1: DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA GENERAL
Karpeta horretan izaera orokorreko informazioa edo administraziokoa egongo da, eta horrekin egiaztatu behar da 2017ko SPKLaren 140. artikuluan datorrena betetzen dela. Era berean, hortxe egon behar da balio-judizio baten mende dauden irizipideen arabera baloratu behar diren agiriak.	Esta carpeta contendrá la información de carácter general o administrativo, mediante la que se acreditará el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 140 de la LCSP 2017; y la documentación que deba ser valorada conforme a los criterios cuya ponderación depende de un juicio de valor.
1.-. Administrazio-agiriak.	1.- Documentación Administrativa
A.- EKAB. Erantzukizunpeko adierazpena, kontratazioaren gaineko Europako dokumentu bakarraren eredura egokituko dena, 141. artikuluarekin bat etorriz. Digitalki sinatu behar da eta behar den moduan identifikatuta. (I ERANSKINA) Lizitatzaileak hauxe adierazi behar du: 1. Baltzua behar den balio osoz eratuta dagoela eta sozietatearen helburuarekin bat lizitazioara aurkez daitekeela. Era berean, proposamena aurkezteko adierazpenaren sinatzailearen ordezkaritza aurkeztu behar da. 2. Izan beharreko klasifikazioa eta kaudimen ekonomikoko, finantziarioko eta tekniko edo profesionaleko baldintzak dituela, pleguan ezarritako baldintzekin eta kontratatzeko Europako dokumentu bakarraren inprimakiarekin bat etorriz. 3. Kontratatzeko debekurik ez duela, ez berak bakarrik, ezta SPKLaren 71.3 artikulua ezartzearen ondorioz sortutako egoeran. 4. Posta elektronikoa, jakinarazpenetarako, SPKLaren hamabosgarren xedapen gehigarriaren arabera, "gaitu" beharrekoa. 5. Erantzukizunpeko adierazpena, lizitatzaileak azpikontratatu nahi duen kontratu zatiari buruzkoa. SPKLaren 215. artikuluan xedatutakoaren kaltetan gabe, enpresa lizitatzaileek adierazi egin behar dute kontratuaren zatiren bat azpikontratatzeko asmorik duten ala ez. Azpikontratatzeko asmoa izanez gero, kontratua osoaren zein portzentaje azpikontratatu behar duen adierazi behar du, noren esku utzi behar duen zati hori eta enpresaren profila. Azpikontratatutako enpresak	A.- DEUC. Declaración responsable que se ajustará al formulario de documento europeo único de contratación de conformidad con lo indicado en el artículo 141, que deberá estar firmada digitalmente y con la correspondiente identificación. (ANEXO I) El licitador deberá poner de manifiesto lo siguiente: 1.° Que la sociedad/entidad está válidamente constituida y que conforme a su objeto social puede presentarse a la licitación, así como que el firmante de la declaración ostenta la debida representación para la presentación de la proposición y de aquella. 2.° Que cuenta con la correspondiente clasificación y que cumple los requisitos de solvencia económica, financiera y técnica o profesional exigidos, en las condiciones que establece este pliego, de conformidad con el formulario normalizado del documento europeo único de contratación. 3.° Que no está incursa en prohibición de contratar por sí misma ni por extensión como consecuencia de la aplicación del artículo 71.3 de la LCSP. 4.° La designación de una dirección de correo electrónico en que efectuar las notificaciones, que deberá ser «habilitada» de conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional decimoquinta de la LCSP. 5.° Declaración responsable relativa a la parte del contrato que la empresa licitadora tenga previsto subcontratar. Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 215 de la LCSP, las empresas licitadoras deberán indicar, en todo caso, si tienen o no previsto subcontratar parte del contrato, señalando, en su caso, el porcentaje que del total que subcontrataría, y el nombre o el perfil empresarial, definido por referencia a las condiciones de solvencia profesional o técnica, de las empresas subcontratadas a las que se vaya a encomendar su

kaudimen profesional edo teknikoko baldintzak bete behar ditu. Era berean, azpikontratatutako enpresetako langileei dagokion hitzarmen kolektiboa zein den zehaztu behar dute. **Ez dago aurrekontuaren %40tik gora azpikontratatzerik**. 6. Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi eta auzitegien mende ipiniko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela. 7. Enpresa lizitatzailearen langileen ezarri beharreko hitzarmen kolektiboa (buletina eta argitalpen-data). 8. Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda egotearen gaineko adierazpena edo EAEko Erregistro Ofizialean.	realización. Asimismo, se deberá identificar el convenio colectivo aplicable al personal de las empresas subcontratadas. **No se podrá subcontratar un porcentaje de obra que supere el 40% del presupuesto ofertado**. 6.° Para las empresas extranjeras, declaración de someterse a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante. 7.° Indicación del convenio colectivo de aplicación al personal de la empresa licitadora, boletín y fecha de publicación del mismo. 8.° Declaración de estar inscrito o inscrita en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o en el Registro Oficial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
B.- Kasu bereziak: a) Atzerriko enpresariak Nazioarteko akordioetatik Espainiari datozkion betebeharrak derrigor bete behar diren arren, Europako Batasunekoak ez diren Estatuetako edo Europako Ekonomia Eremuari buruzko Akordioaren Estatu sinatzaileetako pertsona fisiko edo juridikoek egiaztatu egin behar dute txosten baten bitartez atzerriko enpresa horren Estatuak onartu egiten dituela Espainiako enpresak euren herrialdeko sektore publikoko kontratazioan parte hartzeko, 3. artikuluan jasotakoen haritik, Espainian egiten den antzera. Espainiak atzerrian daukan Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egin behar du, eta bestela ekarri behar duen dokumentazioari erantsi behar zaio. Era berean, EBetik kanpoko enpresa esleipendunari eskatuko zaio Espainian bulegoa zabaltzea, hemen egin beharrekoak egiteko ahaldunak edo ordezkariak izendatzea eta Merkataritza Erregistroan izena emanda egotea. Beraz, eskaintza aurkezteak berekin dakar betekizun hori onartzea. b) ABEEak Lizitaioari begira, ABEEan batuta aurkeztu nahi duten enpresariek adierazi egin behar dute nork osatzen duen aldi baterako enpresa hori (izenak eta bestelako xehetasunak), bakoitzak duen partaidetza eta ABEEaren ordezkari edo ahalorde bakarraren izena, kontratua eurei esleituz gero. ABEE hori honela badago osatuta: estatuko	B.- Casos especiales: a) Empresarios extranjeros Sin perjuicio de la aplicación de las obligaciones de España derivadas de acuerdos internacionales, las personas físicas o jurídicas de Estados no pertenecientes a la Unión Europea o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo deberán justificar mediante informe que el Estado de procedencia de la empresa extranjera admite a su vez la participación de empresas españolas en la contratación con los entes del sector público asimilables a los enumerados en el artículo 3, en forma sustancialmente análoga. Dicho informe será elaborado por la correspondiente Oficina Económica y Comercial de España en el exterior y se acompañará a la documentación que se presente. Asimismo, se exigirá a la empresa no comunitaria que resulte adjudicataria que abra una sucursal en el estado español, con designación de apoderados o representantes para sus operaciones, y que estén inscritas en el Registro Mercantil, por lo que la presentación de la oferta implicará la aceptación de esta exigencia. b) UTEs A efectos de la licitación, los empresarios que deseen concurrir integrados en una UTE deberán indicar los nombres y circunstancias de los que la constituyan, la participación de cada uno y el nombre del representante o apoderado único de la UTE en caso de resultar ésta adjudicataria del contrato. Cuando concurran en la UTE empresarios nacionales, extranjeros que no sean nacionales de un Estado

enpresariak, Europako Batasunekoak ez diren Estatuetakoak eta, atzerritarrak izan arren, Europako Batasunekoak diren estatuetako enpresak edo Europako Ekonomia Eremuaren gaineko Akordioaren Estatu sinatzaileetakoak; lehendabiziko biek euren sailkapena egiaztatu behar dute eta azkenek kaudimen ekonomikoa, finantziarioa eta teknikoa.	miembro de la Unión Europea y extranjeros que sean nacionales de un Estado miembro de la Unión Europea o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo, los que pertenezcan a los dos primeros grupos deberán acreditar su clasificación y estos últimos su solvencia económica y financiera y técnica.
ABEEen kasuan, enpresa bakoitzak aurkeztu beharrekoez gain, 69. artikuluan datorren adierazpena aurkeztu behar dute, hau da, horrekin konpromisoa hartzen duen aldi baterako enpresa eratzeko kontratuaren esleipendun suertatuz gero.	La UTE deberán presentar, respecto a cada una de las empresas integrantes de la agrupación, además de la documentación que para cada una de ellas sea exigible, la declaración prevista en el artículo 69, asumiendo el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal en caso de resultar adjudicatarios del contrato.
Enpresaburuak beste enpresa batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzen baditu, enpresa horietako bakoitzak erantukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du, kasu horietan eskatzen den informazioa jasota, DEUC inprimakiaren arabera eta Legearen 75. artikuluarekin bat etorriz. 75. artikuluaren 2. paragrafoan datorren konpromisoa 140.3 artikuluaren hirugarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz aurkeztu behar da.	En los casos en que el empresario recurra a la solvencia y medios de otras empresas, conforme al artículo 75 de la Ley, cada una de ellas también deberá presentar una declaración responsable en la que figure la información pertinente para estos casos con arreglo al formulario DEUC. La presentación del compromiso a que se refiere el apartado 2 del artículo 75 se realizará de conformidad con lo dispuesto en el apartado tercero del artículo 140.3.
c) Lotutako enpresak Lizitatzaileek beti adierazi behar dute enpresa lotuta dagoen ala ez, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aipatutako egoerekin bat etorriz eta 2017ko SPKLaren 149.3 artikuluan eta Administrazio Publikoen Kontratazio Legearen Erregelamendu Orokorraren 86. artikuluan ezarritako ondorioetarako. Horretarako, Ezaugarrien Koadroaren 10.1 atalean adierazpena aurkeztu beharra dagoela jasoko da.	c) Empresas vinculadas Se indicará en todo caso por los licitadores la condición de empresa vinculada o no a que se refiere el artículo 42 del Código de Comercio a los efectos establecidos en los artículos 149.3 de la LCSP 2017 y 86 del RGLCAP, para lo cual en el apartado 10.1 del Cuadro de Características se expresará la exigencia de presentar una declaración.
d) Foru judizialaren gaineko adierazpena Atzerriko enpresek Espainiako edozein ordenatako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende ipiniko direla adierazten duen aitorpena egin beharko dute, kontratutik zuzenean eta zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, lizitatzaileari egoki lekiokeen atzerriko jurisdikzio-eskumenari uko eginda.	d) Declaración de Fuero Judicial Además de la declaración responsable, las empresas extranjeras, deberán aportar una declaración de sometimiento a la jurisdicción de los juzgados y tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante.
Kontratazio-organoak zein Kontratazio Mahaiak aukera dute lizitatzaileei dokumentu batzuk edo guztiak eskatzeko, adierazpena indarrean ote dagoen edo benetakoa ote den zalantzarik izanez gero, edo prozedura behar den moduan garatzeko, beti ere, kontratua esleitu aurretik.	Tanto el órgano como la mesa de contratación podrán pedir a los licitadores que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración, cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento y, en todo caso, antes de adjudicar el contrato.
Hala ere, enpresaburua Sektore Publikoko	No obstante lo anterior, cuando el empresario esté

Lizitatzaileen eta Enpresa sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda badago edo Europako Batasuneko kide den Estatu bateko datu-base batean (enpresaren espediente birtuala, dokumentuen biltegi elektronikoaren sistema edo aurrez sailkatzeko sistema batean) badago, eta datu horietara doan iristeko modua badago, ez dute zertan aurkeztu dokumentu horiek edo leku horietan ageri diren datuen gaineko frogagiririk. Lehen aipatutako gaitasun, kaudimen eta enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionalari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean izan behar dira indarrean eta kontratua egiteko unean horiek betetzen jarraitu beharko da.	inscrito en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o figure en una base de datos nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y estos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligado a presentar los documentos justificativos u otra prueba documental de los datos inscritos en los referidos lugares. Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar a las que se refieren los apartados anteriores, deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de perfección del contrato.
KARPETA 2: AUTOMATIKOKI BALORA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO AGIRIAK	CARPETA 2: DOCUMENTACIÓN DE CRITERIOS AUTOMÁTICAMENTE EVALUABLES
Karpeta/gutunazalaren barruan, aparteko dokumentu batean, edukia jaso behar da, zenbakitan. Kuantifikatu daitezkeen irizpideen arabera baloratu behar den dokumentazioa sartu behar da hori, formulen bidez baloratu beharrekoa, alegia. Hona hemen:	En el interior del sobre/carpeta se hará constar, en hoja/documento independiente, su contenido, enunciándolo numéricamente. Contendrá la documentación que deba ser valorada conforme a criterios cuantificables mediante la mera aplicación de fórmulas, y, en concreto:
1. BERMEAREN EPEAREN LUZAPENA: 20 puntu arte	**1. AMPLIACIÓN DEL PERÍODO DE GARANTÍA: Hasta 20 puntos.**
Egindako obraren bermearen epea, gutxienezko urte biko epearen gainetik, luzatzea eskaintzen duen konpromezua. Hau argia izan behar da eta ordezkariak sinatuta egon behar da. Eta ABEBaren kasuan hau osatzen duten ordezkari guztiek sinatuta egon beharko da. Dokumentu hori aurkeztuko ez balitz, eskaintza ez litzateke kanpoan geratuko, 0 punturekin baloratuz atal hau.	El compromiso de ampliación del plazo de garantía de la obra ejecutada, ampliando el plazo mínimo de 2 años, que deberá estar debidamente suscrito por la persona representante y ser claro. Y en el caso de UTE, por todos los representantes de las componentes. La no presentación de este documento NO implicará la exclusión de la oferta, solo otorgando a este apartado 0 puntos.
2. ESKAINTZA EKONOMIKOA: PREZIOA: 80 puntu	**2. OFERTA ECONÓMICA: PRECIO: 80 puntos**
Nahi izanez gero, plegu honetako II. ERANSKINEAN datorren eredua erabili behar da eskaintza ekonomikoa aurkezteko. Nolanahi ere, proposamenean aparteko partida batean joango da Administrazioak jasan behar duen BEZa. Hala eskatuz gero, proposamen ekonomikoan prezioak banakatuta dakartzan zerrenda sartuko da. Eskaintza ekonomikoa karaktere argiak erabilita	La oferta económica, ajustada, si se desea, al modelo del Anexo II de este Pliego, cuyo contenido esencial en todo caso se deberá respetar. En todo caso, la proposición presentará, como partida independiente, el importe del IVA que deba soportar la Administración. La proposición económica se presentará en caracteres claros y firmada; y no se aceptarán

aurkeztu behar da eta sinatuta. Ez da onartuko edukia ondo ulertzeko galarazten dituen gauzak faltan, akatsak edo ezabaketak dituen eskaintzarik. Prezioa bakarrik zenbakitan aurkeztuko da. UTE batek aurkeztutako eskaintza UTE hori osatzen duten enpresa guztietako ordezkariek sinatuta aurkeztu behar da. Proposamenen baten eta aurkeztutako eta onartutako dokumentazioaren artean loturarik ez badago, proposamenak lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmenen bat egiten bada, edo lizitaziogileak proposamena bideraezina egiten duen akatsen edo ahultasunen bat duela onartzen badu, Kontratazio Mahaiak proposamena baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu bat eman ostean. Hala ere, hori ez da ereduaren hitz batzuk kendu edo aldatzeko nahikoa izango, baldin eta horrekin ez bada zentzua aldatzen. Eskaintza nabarmenki baxuegi edo neurrigabetzat hartuko dira aurkeztu diren eskaintzen batez bestekotik %25etik behera dauden prezioak. Eskaintza ekonomikorik aurkeztu ezean, eskaintza kanpoan geratuko da.	aquéllas que contengan omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer claramente su contenido. La proposición presentada por una UTE deberá estar firmada por los representantes de cada una de las empresas componentes de la UTE. Si alguna proposición no guardase concordancia con la documentación examinada y admitida, excediese del presupuesto base de licitación, variase sustancialmente el modelo establecido, comportase error manifiesto en el importe de la proposición, o existiese reconocimiento por parte del licitador de que adolece de error o inconsistencia que la hagan inviable, será desechada por la Mesa, en resolución motivada. Por el contrario, el cambio u omisión de algunas palabras del modelo no será causa bastante para el rechazo, si ello no altera su sentido. Se considerará ofertas con valores anormales o desproporcionados a aquellas que oferten un precio inferior en un 25% a la media de las ofertas presentadas. La no presentación de oferta económica implica la exclusión de la oferta.
DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA (errekerimendua eginez gero eta lehiatzailea esleipendun suertatuz gero)	**DOCUMENTACION ADMINISTRATIVA** (a presentar en caso de requerimiento y en caso de licitador propuesto adjudicatario o licitadora propuesta como adjudicataria)
1) Nortasun juridikoa egiaztatzen duen dokumentazioa: Banakako enpresarien nortasun juridikoa Nortasun Agiriaren (NA) kopia kautoaren bidez egiaztatuko da; enpresariak pertsona juridikoak izanez gero, entitatearen eraketari buruzko eskritura edo entitatea eratu izana jasotzen duten agiriak eta estatutuak aurkeztuta, guztiak Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistroan behar bezala inskribatuak. Europar Batasuneko estatuetako kide izanik espainiarrak ez diren enpresarien jarduteko gaitasuna honela egiaztatuko da: kokatuta dauden estatuko legeriaren arabera dagokion erregistroan inskribatuta egotea egiaztatuta edo, bestela, zinpeko aitorpena edo ziurtagiri bat aurkeztu behar da, arauz ezarritako baldintzetan, aplikagarri den Europar Batasuneko xedapenen arabera. Atzerriko gainerako enpresaburuek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatu	**1°) Documentos acreditativos de la personalidad jurídica:** Los empresarios individuales, copia auténtica del D.N.I.; los empresarios personas jurídicas, la escritura o los documentos en que conste la constitución de la entidad y los estatutos por que se rija, debidamente inscritos en el Registro Mercantil o en el que corresponda. La capacidad de obrar de los empresarios no españoles que sean nacionales de Estados miembros de la Unión Europea se acreditará por su inscripción en el registro procedente de acuerdo con la legislación del Estado donde están establecidos, o mediante la presentación de una declaración jurada o un certificado, en los términos que se establezcan reglamentariamente, de acuerdo con las disposiciones comunitarias de aplicación. Los demás empresarios extranjeros deberán acreditar su capacidad de obrar con

beharko dute, Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostena erakutsita edo enpresako egoitzaren lurralde-esparruari dagokion Kontsuletxeko Bulegoaren txostena erakutsita.	informe de la Misión Diplomática Permanente de España en el Estado correspondiente o de la Oficina Consular en cuyo ámbito territorial radique el domicilio de la empresa.
2) Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentazioa: Proposamena beste norbaiten izenean izenpetzen dutenek ordezkapen-ahalmena aurkeztuko dute, baita ordezkatzeko adinako ahalmena duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren kopia kautoa ere. Dokumentazioa kalifikatzeko prozesuan erakunde honek askietsiko du notario-ahalordea.	**2°) Documentos acreditativos de la representación:** Cuando la proposición no aparezca firmada por los licitadores deberá incluirse el poder otorgado a favor de quien o quienes suscriban la proposición junto con una copia autentica del Documento Nacional de Identidad del o los apoderados. El poder notarial será bastanteado por esta entidad en el proceso de calificación de la documentación aportada en este sobre.
3) Kontratatzeko debekua ez daukala frogatzeko agiriak: Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela justifikatuko da.	**3°) Documento acreditativo de no estar incurso en prohibición de contratar,** que incluirá la justificación acreditativa de hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
4) Atzerriko enpresa guztiei eskatzen zaien dokumentazio osagarria: Atzerriko enpresak badira, eta kontratua Espainian exekutatu behar bada, Espainiako epaitegi eta auzitegien mende ipiniko direla adierazi beharko dute aitorpen baten bidez, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.	**4°) Documentación adicional exigida a todas las empresas extranjeras:** Las empresas extranjeras, en los casos en que el contrato vaya a ejecutarse en España, deberán presentar una declaración de someterse a la jurisdicción de los juzgados y tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante.
5) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.	**5°) Acreditación de estar dado de alta en el I.A.E.,** en el epígrafe que corresponda al objeto del contrato, mediante la presentación del alta, si se refieren al ejercicio corriente, o del último recibo del I.A.E., en los demás casos, acompañada en ambos supuestos de una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matricula del referido impuesto.
6) Lizitatzailearen kaudimen ekonomiko, eta finantzarioa - 87.1.b)artikulua.- Arrisku profesionalen gaineko kalte-ordain asegurua izatearen egiaztagiria, eta, zehatz mehatz, plegu honen xedea	**6°) Solvencia económica y financiera del licitador.** - Art. 87.1.b).- Justificante de la existencia de un seguro de responsabilidad civil que cubra los riesgos profesionales y específicamente los derivados del objeto de este

diren arriskuak bermatzen dituelarik: Aseguru-polizaren kopia eta poliza ordainduta dagoela ziurtatzen duen agiria aurkeztu behar dira, kontratuak berekin dakartzan arriskuak eta batez ere erantzukizun zibilekoa (orokorra, patronala eta gurutzatua) estalduta daudela jakiteko. Gutxieneko kopurua: 600.000,00 €, urteko eta ezbeharreko.	contrato: Se presentará una copia de la póliza de seguro y justificante del pago de la misma que cubra los riesgos inherentes al contrato y en especial la responsabilidad civil (general, profesional y patronal) por un importe mínimo de 600.000,00 € por anualidad y siniestro.
7) Lizitatzailearen kaudimen teknikoa eta profesionala. 90.1. artikulua.- a) Sailkapena: G Taldea, 5 Azpitaldea, c kategoria. b) obra-buru izendatutako pertsonaren erdi-mailako titulazio teknikoaren (aparejadorea, peritua edo goi-mailako kualifikazioa) eta euskararen ezagutza egiaztatzea.	**7°) Solvencia técnica y profesional del licitador.** Art. 90.1..- a) Clasificación: GRUPO G, Subgrupo 5, Categoría c. b) Acreditación de conocimiento de titulación técnica media (aparejador, perito o cualificación superior) y conocimiento de Euskera de la persona designada como jefe o jefa de obra.
Izaerari eta ordezkaritzari buruzko gorabeherak, sailkapena eta kaudimen ekonomiko eta finantziarioari buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialaren eta Estatuko Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialaren ziurtagiri bidez froga daitezke, bai eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko 81. artikuluan eta 87.2. artikuluan ezarritakoarekin bat datorren Erkidegoko sailkapen-ziurtagiri baten bidez ere. Ziurtagiria aurkeztuz gero, horrekin batera lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu behar da, ziurtagirian adierazitako inguruabarrak ez direla aldatu azaltzen duena. Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik behar bezala kautotu edo egiaztatuta aurkeztu behar dira.	Las circunstancias relativas a personalidad y representación, así como clasificación y solvencia económica y financiera, podrán acreditarse mediante una certificación del Registro Oficial de Contratistas y Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma Vasca, del Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Estado o mediante un certificado comunitario de clasificación conforme a lo establecido en los artículos 81 y el artículo 87.2 de la LCSP. A la referida certificación deberá acompañarse una declaración responsable del licitador en la que manifieste que las circunstancias reflejadas en el correspondiente certificado no han experimentado variación. La documentación exigida se podrá presentar mediante originales o fotocopias compulsadas o autenticadas.
22. KONTRATAZIO MAHAIA 2017ko SPKLaren 326 artikuluan eta 817/2009 EDaren 21 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta SPKLaren Bigarren Xedapen Gehigarrian,, jasotzen dena kontuan harturik, kontratazio organuak espediente honetan parte hartuko duen kontratazio mahaia izendatzea erabaki du, hurrengo kide hauek: - Mahaiburua: Udalbatzaren burua edo hark eskuordetutako kidea.	**22. MESA DE CONTRATACION** De acuerdo con lo dispuesto en los artículos 326 de la LCSP 2017 y 21 del R.D. 817/2009, y a tenor de lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda. de la LCSP, el órgano de contratación ha procedido a designar la Mesa de contratación que ha de intervenir en la adjudicación de este expediente, compuesta por los siguientes miembros: - Presidenta, que lo será la de la Corporación Municipal o miembro en quien delegue.

- Idazkaria: Udalbatzako idazkaria. - Mahaikideak: alkateak izendatutako 2 zinegotzi. - Udal Arkitekto Aholkularia. Kontratazio Mahaia, organu laguntzaile tekniko espezializatu legez, hurrengo funtzio hauek izango ditu, Legean eta honen garapenean emandako erregelamenduan jasotzen direnen artean: a) 140 eta 141 artikuluetan aipatzen diren aurretiazko betekizunak betetzen direla frogatzeko agiriak kalifikatzea, eta, hórrela badagokio, hautagai edo lizitatzaileen baztertzea erabakitzea, hori betetzea frogatzen ez badute, eta betiere, aldez aurretik konpontzeko aurkera emanda. b) Lizitatzaileen proposamenen balorazioa. c) Horrela gertatzekotan, eskaintza bat ez-ohiz baxuegia dela kalifikatzeko proposamena egitea, aldez aurretik SPKLaren 149 artikuluan jasotzen den prozedura izapidetu eta gero. d) Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailearen aldeko esleitzeko proposamena kontratatzeko organuari egitea, SPKLaren 145 artikuluan jasotzen denarekin bat etorriz, eta plegu honetan jasotzen den legez.	- Secretaria, que lo será la de la Corporación Municipal. - Vocales: 2 concejales designados por la Alcaldía. - Arquitecta Asesora Municipal. La mesa de contratación, como órgano de asistencia técnica especializada, ejercerá las siguientes funciones, entre otras que se le atribuyan en la Ley y en su desarrollo reglamentario: a) La calificación de la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos a que se refieren los artículos 140 y 141, y, en su caso, acordar la exclusión de los candidatos o licitadores que no acrediten dicho cumplimiento, previo trámite de subsanación. b) La valoración de las proposiciones de los licitadores. c) En su caso, la propuesta sobre la calificación de una oferta como anormalmente baja, previa tramitación del procedimiento a que se refiere el artículo 149 de la LCSP. d) La propuesta al órgano de contratación de adjudicación del contrato a favor del licitador que haya presentado la mejor oferta, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 145 de la LCSP, y según proceda de conformidad con el presente pliego.
23. DOKUMENTUEN KALIFIKAZIOA, PROPOSAMENAK IREKITZEA. **1.- Kontratazio Mahaiaren lehenengo jarduerak:** 1 karpetetan jasotzen diren agirien kalifikazioari dagokienez, kontratazio mahaiak APKLEOaren 81 artikuluan jasotzen den bezala jardungo du. Egindako jarduera guztiak egin bekarreko akta edo aktetan jasoko dira derrigorrez. Mahaiak konpon daitezkeen akatsak edo ez aurkezteak aurkituko balitu lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioan, 2017ko SPKLaren 141.2 artikuluan, APKLEOaren 81.2 artikuluan eta 817/2009 EDaren 27. Artikuluan aurreikusten den bezala jardungo da. Konpongarriak diren akatsak egotekotan, lizitatzaileari hiru eguneko epea emango zaio hauek zuzentzeko. Edozein kasutan, jarduerak jarraituko du, publiko izatera pasatuz, eta agertzen diren lizitatzaileei onartutako lizitatzaileen, baztertutako lizitatzaile eta konpondu beharrekoen zerrenda jakinaraziko	**23. CALIFICACIÓN DE DOCUMENTOS Y APERTURA DE PROPOSICIONES** **1.- Actuaciones previas a la Mesa de Contratación:** A los efectos de la calificación de los documentos incluidos por los licitadores en las "Carpetas 1", la Mesa de contratación procederá en los términos indicados en el artículo 81 del RGLCAP. De todas las actuaciones realizadas, se dejará constancia en el acta o actas que necesariamente deberán extenderse. Si la Mesa observase defectos u omisiones subsanables en la documentación presentada por los licitadores, se estará a lo dispuesto en los artículos 141.2 de la LCSP 2017, 81.2 del RGLCAP y 27 del R.D. 817/2009. Cuando esta aprecie defectos subsanables, dará un plazo de tres días al licitador o la licitadora para que los corrija. En cualquier caso, proseguirá el acto, pasando a ser público, y se comunicará a los licitadores asistentes el listado de admitidos, de excluidos y de licitadores a

zaie eta Mahaiak 2. KARPETA irekitzeko data berria jarriko den erabakiko du, automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei buruzko gutun-azala irekitzeko. KARPETA 1 zabaldu ondoren, lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak edo ez aurkezteak aurkitu ez badira, zuzenean asmagarriak diren irizpideei buruzko dokumentazioa aztertuko da, APKLEOaren 83. Artikuluan eta 817/2009 EDaren 27. Artikuluan jasotzen dena kontuan hartuz.	los que se ha requerido subsanación y se decidirá por la Mesa señalar nueva fecha para la apertura de la CARPETA 2 donde se procederá a la apertura de la parte relativa a los criterios evaluables de forma automática. En caso de que, abierta la CARPETA 1, no hubiera defectos u omisiones subsanables en la documentación presentada por los licitadores, se procederá al análisis de la documentación correspondiente a los criterios automáticamente evaluables, atendiendo el desarrollo del mismo a lo dispuesto en el artículo 83 del RGLCAP y 27 del R.D. 817/2009.
